



BILERA-AKTA

ZEHAZTASUNAK

Gaia edo arloa: Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua

Tokia: Kirol Etxea

Eguna: 2025-07-08

Ordua: 18:00

BERTARATUTAKOAK

Izen-abizenak

Joseba Angulo

Sara Dorronsoro

Asier Mujika

Libana Taboada

Iker Lizarribar

Manu Diaz

Santi Osoro

Iñaki Telletxea

Arantxa Arzak

Aitor Garro

Imanol Mendizabal

Julen Perales

Alaitz Bergaretxe

Roberto Ramajo

Iñaki Iturrioz

Itsaso Nabaskues

Hugo Sánchez

Eneritz Maioara (gonbidatua)

Xabier Castaño (gonbidatua)

Iñaki Mendiluce (gonbidatua)

Kargua

Zumarragako udala

Lezoko udala

Aretxabaletako udala

Usurbilgo udala

Gipuzkoako Judo federazioa

Gipuzkoako Futbol federazioa

Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa

Gipuzkoako Eskubaloitza Federazioa

Gipuzkoako Atletismo Federazioa

Orixe Ikastola

Aretxabaletako Kurtzebarri Eskola

Hautzarko Ikastola

GFA-ko Kiroletako zuzendari nagusia

GFA-ko JFko eta Kiroletako zerbitzuburua

GFA-ko Kirol teknikaria

GFA-ko Kirol teknikaria

Gipuzkoako Kirol Egokitu Federazioa

Gipuzkoako Errugbi Federazioa

Foru Diputatu Aholkularia

GAI-ZERRENTA

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.
2. 2025-26 ikasturteko Eskola kiroleko programa eta dagokion txostena onartzea (berrikuntzak)
3. Eskola kiroleko datuak 2024-25
4. Newsletter-aren balorazioa
5. Eskola kiroleko aseguruak
6. LOPIViren betekizun mailaren diagnostikoa klubetan
7. Norberak ekar ditzakeenak.

1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior.
2. Aprobación del programa de deporte escolar del curso escolar 2025-26 y el correspondiente informe
3. Datos de deporte escolar 2024-25
4. Valoración del newsletter
5. Seguro de deporte escolar
6. Diagnóstico sobre la implementación LOPIVI en los clubes
7. Lo que los y las asistentes puedan traer.

EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK



1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea. Itsaso Nabaskues: Hauteskundeak eta gero lehenengo bilera dela dio, beraz kideen erdia ez zen aurrekoan egon. Iñaki Iturrioz: Ekarpenen bat, zuzenketaren bat edo zalantzaren bat dagoen galdetzen du. Bestelako ekarpenik gabe akta onartutzat ematen da.	1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior. Itsaso Nabaskues: Dice que es la primera reunión después de las elecciones, por lo que la mitad de los miembros no estuvieron en anterior. Iñaki Iturrioz: Pregunta si hay alguna aportación, corrección o duda. Se da por aprobada el acta sin más aportaciones.
2. 2025-26 ikasturteko Eskola kiroleko programa eta dagokion txostena onartzea. Iñaki Iturrioz: Jadanik, federazioekin eta lurraldeko hainbat tokietan programan egongo diren aldaketa nagusiak azaldu direla dio. Batzuk irizpide teknikoekin edo politikekin erlazioa duten aldaketak dira eta beste batzuk prozedura aldaketak. Itsaso Nabaskues: Berrikuntzak azaltzen ditu. Datorren ikasturtean Multikirola programa ez da derrigorrezkoa izango kirol-klub batean aritzeko. Dena den, aldundiak kirol aniztasuna sustatzen jarraituko du hasierako adinetan. Horregatik, 12 urteak arte klubetan garatzen diren jarduera osagarriak mugatzeko irizpideak mantenduko dira. Entrenamendu egun eta jardunaldi kopurua eta zonifikazio irizpideak mantenduko dira araututako modalitateetan. Bestetik, orain arte beste foru agindu baten bidez araututa zeuden kirol eskolak (futbol, areto futbol, saskibaloia, eskubaloia eta errugbiko modalitateak) programa barruan txertatuko dira. Honen aldaketa esanguratsuena da klubek irailean ez dutela aldundira tramitatu beharko Kirol-eskola sortzeko edo luzatzeko eskaera telematikorik. Besterik gabe, izen ematea	2. Aprobación del programa de deporte escolar del curso escolar 2025-26 y el correspondiente informe Iñaki Iturrioz: Ya se han explicado los principales cambios en el programa con las federaciones y en diferentes foros del territorio. Algunos son cambios relacionados con criterios técnicos o políticas y otros son cambios de procedimiento. Itsaso Nabaskues: Explica las novedades. El próximo curso el programa Multikirola no será obligatorio para acceder a un club deportivo. De todas formas, la diputación seguirá fomentando la multideportividad en las edades iniciales. Por ello, se mantendrán los criterios para limitar las actividades complementarias que se desarrollan en los clubes hasta los 12 años. Se mantendrá el número de días de entrenamiento y jornadas y los criterios de zonificación en las modalidades reguladas. Por otro lado, las escuelas deportivas hasta ahora reguladas por otra orden foral (modalidades de fútbol, fútbol sala, baloncesto, balonmano y rugby) se integrarán en el programa. El cambio más significativo de esto es que los clubes no tendrán que tramitar a la diputación en septiembre ninguna solicitud telemática para crear o prorrogar la Kirol Eskola. Simplemente, deberán realizar la inscripción en



egin beharko dute eskola kiroleko aplikazioan, partaidetzako lehiaketa ibilbidean. Dena den, aurreko hauetaz gain, gaur egun programa barruan irakaskuntza saioak araututa dauzkaten beste modalitateak (piragüismoa, hockeya, txirrindularitza, izotz gaineko irristaketa artistiko, izotz gaineko hockeya, arraunketa eta benjaminen atletismoa), aplikazioan izen ematea egiten dutenean, zein egun eta zein ordutan entrenatuko duten adieraziko dute. Informazio hori udalak berretsi beharko du taldeetan partaideak sartu ahal izateko.	la aplicación de deporte escolar, en el itinerario de competición de participación. No obstante, además de las anteriores, las restantes modalidades que actualmente tienen reguladas las sesiones de enseñanza dentro del programa (piragüismo, hockey, ciclismo, patinaje artístico sobre hielo, hockey sobre hielo, remo y atletismo benjamín), cuando realicen la inscripción en la aplicación indicarán el día y la hora en que entrenarán. Esta información deberá ser confirmada por el municipio para habilitar que los participantes puedan incorporarse a los grupos.
Multikirola programa, orain arte, lehiaketa partaidetza ibilbidean zegoen, baina izan duen eboluzioaren ondorioz, eta aldundiak garatu dituen oinarriekin lerrokatzeko, irakaskuntza hastapen jardueretan kokatuko da. Hori dela eta, programa honen barruan ez da Gipuzkoako Txapelketarik antolatuko.	El programa Multikirola, hasta ahora, se ubicaba en el itinerario de competición de participación, pero debido a su evolución, y para alinearlo con las bases de la diputación, se enmarcará en actividades iniciación a la enseñanza. Por ello, dentro de este programa no se organizará ningún Campeonato de Gipuzkoa.
Bestalde, aldundiak federazio gehienekin kirol hastapen kanpaina bat du. Horietan, haurrak heziketa fisikoko orduetan kirol hastapen ikastaroak egitera joaten dira klubekin. Eskaintza honen jarduera guztiak liburuxka eta triptiko batean jasotzen dira. Aurten formatu digitalean bakarrik argitaratuko da. Berrikuntza moduan, boleibolean, benjamin eta alebin kategorietan HARTUBOL jokamoldea txertatu da.	Por otro lado, la diputación tiene una campaña de iniciación deportiva con la mayoría de las federaciones. En ellas, los niños acuden con los clubes a realizar cursos de iniciación deportiva en horas de educación física. Todas las actividades de esta oferta se recogen en un folleto y tríptico. Este año solo se publicará en formato digital. Como novedad, se ha incorporado la modalidad de HARTUBOL en las categorías de voleibol, benjamín y alevín.
Beste berrikuntza bat da eskola-kiroleko lizentzia fisikoaren ordez lizentzia digitala erabiliko dela. Orain arte ikastetxeek eta klubek eskualdeko bulegoekin harremanetan jarri behar zuten lizentzia fisikoak lortzeko, baina hemendik aurrera taldeko edo banakako lizentziak modu telematikoan eskuratuko dira. Lizentzia horren bidez, seme-alabei buruzko informazioa emango zaie familiei, QR baten bidez lizentziaren informazioa eguneratua ikusarazi ahal izango baitute.	Otra novedad es la sustitución de la licencia física de deporte escolar por la licencia digital. Hasta ahora los centros escolares y clubes debían ponerse en contacto con las oficinas comarcales para obtener las licencias físicas, pero a partir de ahora las licencias de grupo o individuales se adquirirán de forma telemática. A través de esta licencia, se facilitará a las familias la información sobre la inscripción de sus hijos-as, ya que podrán visibilizar la información de la licencia a través de un QR.



Judo, gimnastika eta irristaketa modalitateak psikomotrizitatea garatzeko egokiak diren modalitate bezala hartzen dira. Modalitate hauetan aurrebenjaminek klubon bidez jarduerak egin ditzakete. Orain arte ikastetxeak izen emateak hastapen ibilbidean egiten zituzten. Hurrengo ikasturtean izen-emateak erakunde antolatzaileak egingo ditu parte hartzeko lehiaketa ibilbidean.	Las modalidades de judo, gimnastika y patinaje se consideran modalidades aptas para el desarrollo de la psicomotricidad. En estas modalidades los pre-benjamines pueden realizar actividades a través de los clubes. Hasta ahora los colegios realizaban las inscripciones en el itinerario inicial. El próximo curso las inscripciones serán realizadas por la entidad organizadora en el itinerario de competición participación.
Mendizaletasunean beste hain beste. Izen emateak eta C5b diru-laguntza eskaera erakunde antolatzaileak egingo ditu (ikastetxeak ala klubak). Orain arte ikastetxeek soilik egin zezaketen.	Los mismo pasará en el montañismo. Las inscripciones y la solicitud de subvención C5b serán realizadas por la entidad organizadora (centros escolares o clubes). Hasta ahora sólo podían hacerlo los centros encolares.
Errendimenduan hasteko lehiaketetan euskal pilota eta futboleko izen-emateak KIROLDATA bidez egingo dira. Orain arte federazioaren beste aplikazio batean egin dira.	En las competiciones de iniciación al rendimiento las inscripciones de pelota vasca y fútbol se realizarán a través de KIROLDATA. Hasta ahora se han realizado en otra aplicación de la federación.
Kirol eskolen jarduerak irailaren 1etik aurrera hasteko aukera egongo da izen-ematea egin eta gero.	Las actividades de las escuelas deportivas podrán comenzar a partir del 1 de septiembre una vez realizada la inscripción.
Parte hartzeko infantil eta kadete lehiaketetan eta errendimenduko lehiaketa guztietan argazkiak derrigorrezkoak izango dira. Hori gabe, aplikazioak ez du utziko inskripzioarekin jarraitzen.	En las competiciones infantiles y cadetes de participación y en todas las competiciones de rendimiento las fotografías serán obligatorias. Sin ella, la aplicación no permitirá continuar con la inscripción.
Eskola Kiroleko programaren egituraketa berrantolatu da ulerterrazagoa egiteko helburuarekin. Bost puntutan antolatu da: - Programaren oinarriak - Ibilbideak eta jarduerak - Irizpide orokorrak: izen-emateak, aseguruak, kirol eskolen baldintzak... - Kirol eskaintza: ikastetxean garatzen diren programak (II eranskina) eta klubon bidez garatzen diren programak/jarduerak (III eranskina). - Eranskinak.	Se ha reorganizado la estructuración del programa de Deporte Escolar con el objetivo de hacerlo más comprensible, en cinco puntos: - Bases del programa - Itinerarios y actividades - Criterios generales: inscripciones, seguro, condiciones de las escuelas deportivas... - Oferta deportiva: programas que se desarrollan en el centro (Anexo II) y programas/actividades que se desarrollan a través de clubes (Anexo III). - Anexos.
Aipatzekoa da IV eta V eranskinak berriak direla. IV eranskina izen-emateen inguruko	Cabe señalar que los anexos IV y V son nuevos. El anexo IV recoge los criterios de inscripción



aldeaz aurretik adostutako irizpideak jasotzen ditu. Irizpide horiek betetzen dituzten gorabeherak zuzenean onartuko dira eta ondorioz, entitateak ez du baimen telematikorik eskatu beharko. Ildo berean, V eranskina lizentzia federatuaren emisiorako irizpideak jaso dira. Erakundeak ez du baimen telematikoa eskatu beharko irizpideetan jasota dauden eskaerak egiteko. KirolDatatik botoi bat habilitatuko da tramitea egiteko. Federazioak eta aldundiak eskaera irizpidearekin bat datorren txekeatuko dute. Honekin, tramitearen erantzuna azkarragoa izatea lortuko da. Bi eranskin hauetan jasotzen ez diren eskaerak egiteko baimen telematikoa egin beharko da.

Manu Diaz: Multikirolan parte hartuko ez duten haurren izen-emateak egiteko, kluba ikastetxearekin edo Kirol Laguntza Bulegoarekin kontaktuan jarri beharko direla dio. Ez dakigu kopuru hori zenbatekoa izango den, baina demagun %20a baino handiagoa dela. Hori kudeatzea ez da erraza izango.

Iñaki Iturrioz: Kopuru horiek txikiagoak izango direla uste du. Ez da kontuan izan behar soilik Multikirola programa. Hastapen kanpainetan parte hartu izan duten haurrak aplikazioan altan emanda daude. Beraz, oso kasu gutxi izango dira aplikazioan altan emanda egongo ez direnak.

Manu Diaz: Gipuzkoara kanpotik datozen haur berriak ez dira inon agertuko. Honek arazoak ekarriko dituela uste du.

Iñaki Iturrioz: Etorkizunari begira konponbideak bilatzeko konpromisoa hartzen du, horrek arazoak ekartzen baditu.

Manu Diaz: Lizentzien inguruan beste gai bat komentatu nahi du. Foru Aldundiaren erabakiaren ondorioz, futbola eta euskal pilotak ez dituzte orain arte bezala lizentziak tramitatuko. Mahi honetan hurrengo azpimarratu nahi du: futbol

previamente acordados. Las incidencias que cumplan estos criterios serán admitidas directamente, por lo que la entidad no deberá solicitar ninguna autorización telemática. En el mismo sentido, el anexo V recoge los criterios de emisión de la licencia federada. La entidad no deberá solicitar la autorización telemática para realizar las solicitudes recogidas en los criterios. Desde KirolData se habilitará un botón para realizar el trámite. La federación correspondiente y la diputación chequearán si la solicitud se ajusta al criterio. Con ello se logrará que la respuesta al trámite sea más rápida. Las solicitudes no recogidas en estos dos anexos deberán ser objeto de autorización telemática.

Manu Diaz: Dice que para realizar las inscripciones de los-as niños-as que no participarán en el multikirola, el club deberá ponerse en contacto con el centro escolar o la "Kirol Laguntza Bulegoa". No sabemos cuánto será esa cifra, pero supongamos que es superior al 20%. Gestionar eso no va a ser fácil.

Iñaki Iturrioz: Esas cifras, a su juicio, serán menores. No hay que tener en cuenta sólo el programa Multikirola. Los-as niños-as que hayan participado en las campañas de iniciación están dados de alta en la aplicación. Por lo tanto, serán muy pocos los casos que no estén dados de alta en la aplicación.

Manu Diaz: Los nuevos niños que vienen a Gipuzkoa de fuera no aparecerán por ningún lado. Cree que esto traerá problemas.

Iñaki Iturrioz: Se compromete en buscar soluciones de cara al futuro, si eso trae problemas.

Manu Diaz: Quiere compartir otro tema, concretamente sobre las licencias. La decisión de la institución foral supone que ni el fútbol ni la pelota vasca tramitarán licencias como hasta ahora. Quiere resaltar en esta mesa que esto va a causar importantes perjuicios a la federación



federazioarentzat kalte handiak sortuko ditu honek, bai izen-emateen epeengatik, bai titulazioen kudeaketarako, baita ere klubaren arteko jokalarien mugimenduengatik. Azken honen harira, orain arte kluba eta jokalaria artean konpromiso moral bat eta sinadura bat zegoela dio, izen-ematea uztailearen 1ean egiten baizen. Azpimarratzen du, udaran zehar konpromiso moral hori bazegoela, nahiz eta talde aldaketa egiteko aukera egon. Oraingo egoerarekin, kontrola murriztuko da eta udara guztian zehar azoka bat egongo da, batez ere Donostialdean, eta oso kaltegarritzat jotzen dituen talde-aldaketa asko gertatuko direla uste du. Beste aldetik, entrenatzaile tituladunak kontrolatzeko arazoak egongo dira, gaur egun datuen arteko trazabilitatea ezin delako bermatu. Bestelako gai batzuekin ere arazoak izango ditugu, adibidez, prestakuntza-eskubideen kontrolarekin. Azkenik, gai horren beste azterketa tekniko eta politiko bat eskatu du. Haren ustez, Aldundiak «zentzu oneko» kontrol baterako egin nahi du aldaketa, eta hori informatika-iraulketa on baten bidez bermatu daiteke, orain arteko izapideari eutsiz. Roberto Ramajo: Aktan jasoko dela eta zer egin daitekeen ikusiko dela adierazten du. Manu Diaz: Galdetu du ea eskola-kiroleko aseguruak estaltzen duen aldundiak kirol-eskolei baimendutako lehiaketetan parte hartzea, eskola-kiroleko programatik kanpo antolatzen direnean. Iñaki Iturrioz: Ezetz erantzuten du. Programa barruan dauden jarduerak soilik estaltzen direla dio eta antolatzaileari erantzukizun zibileko asegurua izatea eskatzen zaiola jardura baimentzeko. Hugo Sanchez: Ekainean aseguru-etxe aldaketa egon dela azaltzen du. Aldaketa ikasturte honetarako geratzen diren Eskola Kiroleko jarduerak eta Uda kanpainaren	de fútbol, tanto por los plazos de inscripción como por la gestión de las titulaciones, así como por los movimientos de jugadores entre clubes. A raíz de esto último, sostiene que hasta ahora existía un compromiso moral y una firma entre el club y el jugador, ya que la inscripción se realizaba el 1 de julio. Subraya que a lo largo del verano existía ese compromiso moral, aunque hubiera la posibilidad aún de realizar cambios de equipo. Con la situación actual, se reducirá el control y habrá un mercado durante todo el verano, sobre todo en Donostialdea, y cree que se van a producir muchos cambios de equipo que considera muy perjudiciales. Por otro lado, habrá problemas para controlar a los entrenadores titulados, porque a día de hoy no se puede garantizar la trazabilidad entre los datos. También tendremos problemas con otros temas, como el control de los derechos de formación. Por último, solicita un nuevo análisis técnico y político de esta cuestión. A su juicio, la Diputación realiza este cambio para un control «de buen sentido», lo que se puede garantizar con un buen volcado informático, manteniendo la tramitación hasta ahora. Roberto Ramajo: Indica que se recogerá en el acta y que se verá lo que se puede hacer. Manu Diaz: Pregunta si el seguro de deporte escolar cubre la participación de las escuelas deportivas en competiciones autorizadas por la diputación pero organizadas fuera del programa de deporte escolar. Iñaki Iturrioz: Responde que no. Dice que sólo se cubren las actividades incluidas en el programa y que se exige al organizador tener un seguro de responsabilidad civil para autorizar la actividad. Hugo Sanchez: Explica que en junio ha habido cambio de aseguradora. El cambio se ha realizado para prolongar las actividades de Deporte Escolar que restan para este curso y la
--	--



estaldura luzatzeko egin da. Protokolo berria azaltzen du. Hala ere, ikasturte berriarekin, hau da, irailean, alaketak espero direla dio, osasun asistentzia Osakidetzatik bideratuko dela aurreikusiz. Iñaki Iturrioz: Txostenaren onartzearen bozketa egin aurretik, programaren ezaugarria nagusiak errepasatu ditu, kontseiluko kideei alde aurretik bidali zitzaiena: jarduera kopuruaren mugaketa, modalitateen berezitasunak eta ezaugarrien araberako salbuespenak, espezializazio goiztiarra saihesteko neurriak, segurtasun eta babes inguruan jarduera sustatzea, kudeaketa digitalaren hobekuntzak eta programaren helburu nagusiak (hezitzailea, unibertsala eta bidezko izatea, bizitza aktiboa eta osasuntsua sustatzea, komunitatean garatzea, euskara eta euskal kultura sustatzea, kirola garatzea, talentua garatzea eta haurren eskubideak bermatzea). Ondorioz, hurrengo testua irakurtzen du kontseilukideek oniritzia eman dezaten: “EKLK-k programaren testua egokitzen jotzen du helburuak betetzeko, eta aldeko iritzia ematen du, hobekuntza-proposamenak kontuan hartuta”. Bozkatu egiten da: 11 boto alde eta 1 kontra. Horiek horrela, kontseilukideek erabaki dute aldeko txostena ematea eskola-adineko kirolari eta jarduera fisikoari buruzko 2025-26 ikasturteko urteko programari buruz.	cobertura de la campaña de verano. Explica el nuevo protocolo. No obstante, dice que se esperan cambios con el nuevo curso, es decir, en septiembre, previendo que la asistencia sanitaria se derive desde Osakidetza. Iñaki Iturrioz: Antes de la votación para la aprobación del informe, ha repasado las principales características del programa, que fue facilitado con anterioridad a los miembros del consejo: limitación del número de actividades, particularidades de las modalidades y excepciones en función de sus características, medidas para evitar la especialización temprana, medidas protectoras y fomento de la actividad en el entorno seguro, mejoras en la gestión digital y principales objetivos del programa (educativo, universal y equitativo, promotor de la vida activa y saludable, desarrollado en comunidad, promotor del euskera y la cultura vasca, desarrollo del deporte, desarrollo del talento y garantizante de los derechos de los niños y niñas). En consecuencia, procede a la lectura del siguiente texto para el visto de los miembros: "EKLK considera adecuado el texto del programa para el cumplimiento de los objetivos y se pronuncia favorablemente teniendo en cuenta las propuestas de mejora". Se vota: 11 votos a favor y 1 en contra. A la vista, los miembros del consejo acuerdan emitir informe favorable del programa anual de deporte y actividad física en edad escolar del curso 2025-26.
3. Eskola kiroleko datuak 2024-25 Itsaso Nabaskues: Datu orokorrak partekatzen ditu. 2024-25 ikasturtean, Jolashezi eta Multikirola programek parte-hartze handiagoa izan dute aurreko ikasturtearekin alderatuta. Jolashezira matrikulatutako ikasleen %26,96k parte	3. Datos de deporte escolar 2024-25 Itsaso Nabaskues: Comparte datos generales. En el curso 2024-25 los programas Jolashezi y Multikirola han tenido una mayor participación con respecto al curso anterior. El 26,96% del alumnado matriculado en Jolashezi ha participado. En multikirola, la participación ha



hartu du. Multikirolan, parte-hartzea %61,91koa izan da. Kluben bidezko parte-hartze lehiakorretan jaitziera txiki bat izan da. Ondoren, genero-arrakalaren analisia azaltzen du. Jolashezi (%37 neska) eta Multikirola (%38 neska) programetan genero-arrakala nabarmena dago. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, Multikirolan nesken parte-hartzea igo da, baina arrakala mantendu da. Kluben eskoletan (programatik kanpoko jarduerak), genero-arrakala handia da oraindik (%28 neska). Jaiotza-tasa jaitsi arren, nesken parte-hartzea igo da, 130 neska gehiago aurreko ikasturtearekin alderatuta. Futbol eta eskubaloian nesken parte-hartzea %12 igo da. Programaren barruko jarduera osagarrietan %4ko jaitziera izan da. Genero-arrakala %2 murriztu da jarduera horietan (%47 neska).	sido del 61,91%. Se ha producido un pequeño descenso en las competiciones de participación a través de los clubes. A continuación expone el análisis de la brecha de género. En los programas Jolashezi (37% chicas) y Multikirola (38% chicas) existe una brecha de género notable. Con respecto al curso anterior, en el Multikirola ha subido la participación de las chicas, pero se mantiene la brecha. En las escuelas de clubes (actividades fuera del programa) la brecha de género sigue siendo importante (28% chicas). A pesar del descenso de la natalidad, la participación de las chicas ha aumentado en 130 respecto al curso anterior. La participación femenina en fútbol y balonmano ha subido un 12%. Las actividades complementarias del programa han experimentado un descenso del 4%. La brecha de género en estas actividades se ha reducido en un 2% (47% chicas).
4. Newsletter-aren balorazioa Iñaki Iturrioz: Newsletterra urritik ekainera argitaratu dela azaldu du, hilean behin. Helburua Eskola Kirolaren balioak eta onurak gurasoei helaraztea izan da. Eduki asko landu dira, programaren oinarriak eta balioak, arrakastaren gakoak, gaiari lotutako albisteak, familian egiteko plan-proposamenak eta abar. Hedapenerako tresna bezala eskolako buletinak, Ikastetxeko aplikazioak eta email bidezko bidalketa erabili dira. Hala ere, ez da lortu nahi bezalako zabalkuntza. Gurasoen arteko irismena mugatua izan da. Hedapen-kanaletan hobekuntza beharra antzeman da. Eragileen inplikazioa funtsezkoa da mezua zabaltzeko.	4. Valoración del newsletter Iñaki Iturrioz: Explica que el newsletter se ha publicado de octubre a junio, una vez al mes. El objetivo ha sido transmitir a los padres los valores y beneficios del Deporte Escolar. Se han trabajado muchos contenidos, las bases y valores del programa, las claves del éxito, las noticias relacionadas, las propuestas de planes para hacer en familia, etc. Como herramienta de difusión se han utilizado los boletines escolares, las aplicaciones de los centros escolares y el envío vía email. Sin embargo, no se ha conseguido la difusión deseada. El alcance entre las familias ha sido limitado. Se ha detectado la necesidad de mejora en los canales de difusión. La implicación de los agentes es fundamental para difundir el mensaje.
5. Eskola kiroleko aseguruia Bileraren bigarren puntuaz azaldu da asegurua gaia.	5. Seguro de deporte escolar Este tema se ha explicado en el segundo punto de la reunión.



6. LOPIVren betekizun mailaren diagnostikoa klubetan Iñaki Iturrioz: Diagnosi bat bidean dagoela azaldu du, Zain enpresaren bidez egiten ari dena. Helburua klubetan LOPIVik zehazten duen betekizunak zein mailatan betetzen ari den jakitea da. Dagoeneko erantzun duten 80 elkarteekin lagin bat jaso da eta horrekin hasiko da diagnosa. Horrekin, prestakuntza batzuk bideratuko dira. Iñaki Telletxea: Kexa bat egin nahi du. Jende berria izan dute eta ez dute ikastaroa egiteko aukerarik izan. Iñaki Iturrioz: Ikastaro hauek Kirolaren Euskal Eskolak antolatzen dituela erantzuten dio, eta aste honetan deialdi berri bat egin duela ikusi du. Eusko Jaurlaritzaren eskumena da. Eskubaloiarekin akordio bat egin da entrenatzaile ikastaroekin bateratzeko. Arantxa Arzak: Entrenatzaile ikastaroak bateratzeko egin duten prozesua, honen balorazioa (plataformak arazo asko eman zien) eta etorkizunean emango dituzten pausuak azaltzen ditu. Oraingo honetan ikastaroak bateratu dituzte, baina federazioaren etorkizuneko helburua da entrenatzaile eta epaile ikastaroetan formazio hori integratzea.	6. Diagnóstico sobre la implementación LOPIVI en los clubes Iñaki Iturrioz: Explica que está en camino un diagnóstico que se está haciendo a través de la empresa Zain. El objetivo es conocer en qué nivel se están cumpliendo los requisitos que determina la LOPIVI en los clubes. Se ha recogido una muestra con las 80 entidades que han respondido para comenzar el diagnóstico. Posteriormente se organizarán una serie de formaciones. Iñaki Telletxea: Quiere hacer una queja. Han tenido gente nueva y no han tenido la oportunidad de hacer el curso. Iñaki Iturrioz: Responde que estos cursos los organiza la Escuela Vasca del Deporte, y esta semana ha visto una nueva convocatoria. Es competencia del Gobierno Vasco. Se ha hecho un acuerdo con el balonmano para compatibilizarlo con los cursos de entrenadores. Arantxa Arzak: Explica el proceso que han llevado a cabo para unificar los cursos de entrenador, su valoración (la plataforma les dio muchos problemas) y los pasos que van a dar en el futuro. En esta ocasión han juntado los cursos, pero el objetivo futuro de la federación es integrar esta formación en los cursos de entrenadores y arbitros.
7. Norberak ekar ditzakeenak. Xabier Castaño: Zonifikazio arauarekin arazoak dauzkatela dio. Orain arte eranskin batzuk zituzten eta horiekin benjaminek Gipuzkoako lurralde osoan, Araban eta Nafarroan topaketak egitea ahalbidetzen zen. Datorren ikasturtetik aurrera, benjamin kategoriako taldeek lurralde mailan lehiatu beharko dute, hau da, Gipuzkoan. Hau bere iritzia arabera, kaltegarria da Gipuzkoako errugbiarentzat. Kirol minoritario da eta daukaten masa kritikoa dela eta, beti talde	7. Lo que los y las asistentes puedan traer. Xabier Castaño: Dice que tienen problemas con las normas de zonificación. Hasta ahora contaban con unos anexos con los que se posibilitaba que los benjamine celebraran encuentros en todo el territorio guipuzcoano, Álava y Navarra. A partir del próximo curso, los equipos de categoría benjamín tendrán que competir a nivel territorial, es decir, en Gipuzkoa. Esto según su opinión es perjudicial para el rugby guipuzcoano. Es un deporte minoritario y por su masa crítica siempre



berdinen artean lehiatuko da. Horrekin lotura, irizpidea desplazamenduaren iraupena edo distantziari erreparatu behar litzatekeela dio, eta ez muga geografikoei. Salbuespenak aplikatzeko proposamenak egiten du. Adibidez, kanpoko taldeak Gipuzkoara etortzea baimentzea eta Gipuzkoako taldeak kanpora joateko jardunaldi kopuru bat mugatzea, federazioaren kontrolpean. Federazioek malgutu beharko liratekeen zonakatzeko-irizpideen zenbait alderdiri buruz eztabaidatu dute. Oro har, beharrezko neurriak direla ikusten dute eta horren helburua zein den ulertzen dute. Nolanahi ere, uste dute malgutasun handiagoz aplikatu behar direla kirolaren arabera, batez ere kirol minoritarioetan. Roberto Ramajo: Hausnartu du federazioen iritzi orokorra, zonifikazioaren araudiari dagokionez, egoera jakin batzuetan malgutu egin behar dela. Aktan jasotzea eskatu du, gai hori aztertu ahal izateko.	competirá entre los mismos equipos. En relación con ello, señala que el criterio debería fijarse en la duración o distancia del desplazamiento y no en las limitaciones geográficas. Hace propuestas para aplicar excepciones. Por ejemplo, permitir que equipos foráneos vengan a Gipuzkoa y limitar un número de jornadas para que los equipos guipuzcoanos se vayan fuera, bajo control federativo. Las federaciones debaten sobre algunos aspectos de los criterios de zonificación que deberían flexibilizarse. En general, ven que son medidas necesarias y entienden cuál es su objetivo. En cualquier caso, consideran que deben aplicarse con mayor flexibilidad en función del deporte, sobre todo en los deportes minoritarios. Roberto Ramajo: Reflexiona sobre que el sentir general de las federaciones es que las medidas de zonificación se deben flexibilizar en determinadas situaciones. Pide que conste en acta para poder tratar este tema.
---	---

Donostian, 2025eko uztailaren 16an

Hugo Sánchez
Kirol Teknikaria